

### **3. atala.**

## **Telebista-kontsumoa**

Biztanle askok egunero ikusten du telebista, gehiago ala gutxiago. Telebistak betetzen duen minutu-multzo hori ez da tamaina berekoa izan azken hamarkadetan, ezta ere berdintsu banatzen egunean zehar, asteko egunetan edota urteko hile guztietan.

Gainera, biztanleriaren multzo bakoitzak kontsumo-portaera desberdina dauka. Adinak, sexuak, klase sozialak eta etxebizitzako ekipamenduak markatzen du telebistarekiko atxikimendua. Hori horrela izanik, telebista-kanalek eskaintzen duten programazioari erantzunez, ikusentzuleriaren tamaina eta nortasuna aldatu egiten da. Hala nola, kanal-etako audientziaren perfila desberdina izaten da bizileku duten herriaren tamainaren, adinaren, sexuaren edota klase sozialaren arabera.

### 3. ATALA: TELEBISTA-KONTSUMOA

1. Populazioaren denboraren erabilera eta aisialdian telebistak betetzen duen tartea
  - Eguna zertan eman
  - Etxebizitzaren ekipamendua
2. Telebistari so
  - Telebista-kontsumoaren bilakaera, minututan (1990-2003)
  - Telebista-kontsumoa hilearen arabera, minututan (2003)
  - Telebista-kontsumoa asteko egunaren arabera, minututan (2003)
  - Telebista-kontsumoa eguneko ordu-multzoaren arabera, minututan (2003)
3. Kanalen audientziaren bilakaera
4. Perfilak
  - Estatu frantziarreko, France 2ko eta TF 1eko ikuslearen perfila (CSA, 2002)
  - Estatu espainiarreko, TVE 1eko eta Tele 5eko ikuslearen perfila (2003)
  - Euskal Autonomia-Erkidegoko, ETB 1eko eta ETB 2ko ikuslearen perfila (2003)
5. Generoen erakargarritasun-maila
6. Bibliografia
7. Gehigarriak
  - Intereseko webguneak

Edozein eremu geopolitikotan bizi den populazio ia osoa hartzen da kontuan telebistaren kontsumoa aztertzerakoan, izan ere, biztanleria horren gehiengo ia erabatekoak egunean zehar ikus-entzuten baitu telebista. Egia da, baita ere, telebista-kontsumo hori, neurri handienez, etxebizitzan ematen dela eta eremu hori dela, hain zuzen ere, ikus-entzunezko ekipamendua neurtzeko erabiltzen dena. Gizabanakoak, biztanleria oro har eta pertsona horiek etxebizitzaka batuta dira erreferentzia sozio-demografiko garrantzitsuenak. Baina, ezin dugu ahaztu, biztanleriaren baitan, sarritan arrazoi metodologikoak tarteko, audientzia-ikerketak egiten direnean adin batetik beherakoak (4 urtekoak audimetria erabiltzen dutenen kasuan, eta 14tik beherakoak inkesten bidezko ikerketetan) ez direla kontuan hartuak izaten. Beraz, telebista-audientzia, emaitzak jasotzen ditugunean, gogoratu beharra dugu ezen biztanleria osotik unibertso mugatuago bat definitu izan dela eta adin-tarte batean sartzen direnei buruzko emaitzak jasoko ditugula, ez beste edonorenak.

Biztanleria, etxebizitzak eta ikerketaren unibertsoa zein den jakitea oso garrantzitsua izango zaigu telebista ikus-entzuten dutenen kopuruaz jabetzeko eta, hala nahi izanez gero, bestelako osagarri sozio-demografikoetan sakontzeko.

Hona hemen Euskal Herriko, Estatu frantziarreko eta espainiarreko biztanleriari eta etxebizitza-kopuruari buruzko datu orokorrenak. Kotuan hartu behar dugu ezen datuok iturburu ugariak dituztela eta, inoiz, beren arteko desberdintasunen batzuk egon egoten direla. Euskal Herrirako Udalbiltza-ren (2002) eta Fundació La Caixa-ren (2004) datuak hobetsi ditugu eta, homogenotasunaren izenean, Estatu frantziarraren eta espainiarren kasuan, IPrenak (2003).

	EAE	NFK	HEH	Iparrald.	EH	EE	EF
<b>Biztanleria</b>	2.084.493	555.829	2.640.322	262.640	2.902.962	41.837.992	61.387.038
<b>Familiak</b>	745.144	189.632	934.776	110.573	1.045.349	14.270.656	24.870.000

Iturria: Euskal Herriko biztanleriari buruzko datuak Udalbiltza, 2002 eta Garapen Kontseilua; etxebizitzena Fundació La Caixa, 2004 eta; Estatu frantziarreko eta espainiarreko guztiak, IP, 2003.

## ***1. POPULAZIOAREN DENBORAREN ERABILERA ETA AISIALDIAN TELEBISTAK BETETZEN DUEN TARTEA***

### ***1.1. Eguna zertan eman***

Lotan, lanean eta aisialdian ematen ditugu eguneko ordu gehienak. Hiru horietarik azkenean kokatzen dira nahita eginikoak eta bizitza sozialari, kirolari, zaletasunei eta hedaideei eskaintzen dizkiegunak. Egunaren herena zeregin horietan joaten zaigu.

Europako, Estatu frantziarreko eta espainiarreko eta —gure inguru hurbilago— EAEko datuak (Eurostat, 2003; INE, 2003 eta Eustat, 2003) ados dira denbora librean hedabideek eta bereziki telebistak duen lekutzarraz. Europan aisialdiaren %40 telebista-hargailuaren parean joaten da. Aurreraxeago ikusiko dugun bezala, kopuru antzerakoetan mugitzen da Estatu espainiarreko zein frantziarreko biztanleria. Eta, Euskal Herri osoko kopuruak ez baditugu ere, pentsatzekoa da EAEn gertatzen diren joera bertsuetan ibiliko direla gainontzeko lurraldeak. Ondokoak dira hamasei urtetik gorako biztanleen denbora-banaketa egunean zehar.

#### Gizartea-denbora jarduera-motaren arabera, minututan; 2003-Eustat

Jarduera-mota	Biztanleria <sup>1</sup>	Partaideak <sup>2</sup>
Behar fisiologikoak	710'	710'
Lana eta prestakuntza	203'	418'
Etxeko lanak	143'	182'
Familiakoekiko ardua	21'	106'
Gizarte-harremanak	58'	110'
Aisia aktibo eta kirolak	77'	129'
Aisia pasiboa	159'	174'
Joan-etorriak	68'	87'

Iturria: Eustat (2003): “Batez besteko gizarte-denbora, partaide eta tasari jarraiki, jarduera-motaren eta egunaren arabera (orduak eta minutuak)”.

Aisia pasiboa deiturikoan kokatzen da hedabideei eskainitako ordu- eta minutu-kopurua. Gainera, beheko taulan ikusten denez, biztanleria osoan zein jarduera horretara eskaintzen direnen kopurua antzerakoa da hedabideen kasuan. Horrek, besteak beste, erakusten du telebista ikusteko ohiturak zenbaterainoko garrantzia eta hedadura duen gure artean.

#### Gizartea-denbora, aisia pasiboaren arabera, minututan; 2003-Eustat

Jarduera pasiboak	Biztanleria	Partaideak
Komunikabideak	125'	148'
Jardunik gabe	19'	71'
Ikuskarietara joatea	5'	116'
Jokoak	8'	106'
Zaletasun artistikoak eta bestelakoak	2'	102'

Iturria: Eustat (2003): “Batez besteko gizarte-denbora, partaide eta tasari jarraiki, jarduera-motaren eta egunaren arabera (orduak eta minutuak).”

1. 16 urtetik gorakoak kontuan hartuak izan dira.

2. Jarduera horretan parte hartzen dutenen artean ateratako ehunekoak.

## 1.2. Etxebizitzaren ekipamendua

Askok aldatu da —eta itxura guztien arabera gorako bidean mantenduko da— etxebizitzetan dagoen ikus-entzunezko ekipamenduaren kopurua eta sofistikazioa. Izan ere, telebista-hargailu hutsa eta bakarra zegoen tokian, gaur egun, askoz aparatu gehiago daude, eta horrek kontsumorako aukerak biderkatzen ditu.

	<b>EAE</b>	<b>NFK</b>	<b>HEH</b>	<b>EE</b>	<b>EF</b>
<b>TB hargailua</b>	99,6	99,6	99,6	99,6	99
<b>TB hargailu 1</b>	33,9	41,5	35,5	39,7	53,4
<b>TB hargailu &gt;1</b>	65,7	58,1	64,1	59,8	46,6
<b>Teleagintea</b>	-	-	-	87,5 <sup>3</sup>	96,7
<b>Magnetoskopia (VCR)</b>	73,6	72,7	73,4	70,7	83,4
<b>DVD</b>	29,6	21,4	27,9	24,4	16,4 <sup>3</sup>
<b>Kable-sarbidea</b>	9,5 <sup>5a</sup>	-	-	-	37,8
<b>Kable-harpidetza</b>	7,6	5,4	5,9	7,5	14,7
<b>Satelitea (banak+kolekt.)</b>	13,3	17,8 <sup>5b</sup>	14,2	14,3	18,5
<b>Telebista digitala</b>	-	10,4	-	1,6	-
<b>Ordainpeko telebista, oro har</b>	14,4	21	15,8	-	-

Iturria: Euskal Autonomia Erkidegoa, EGM, 2004 eta Eustat, 2003; Nafarroakoa Komunitate Forala, AIMC, 2004 eta IEN, 2003; Hego Euskal Herria, AIMCtik guk kalkulatu; Estatu frantziarra, IP, 2003 eta Médiamétrie, 2004; Estatu espainiarra, AIMC, 2004

## 2. TELEBISTARI SO

Lerro batzuk lehenago ikusi dugun modura, telebista sozialki oso erakargarria da eta denbora librearen tarte garrantzitsu bat betetzen du.

Hego Euskal Herriko zein Estatu espainiarreko biztanleriaren %90 inguruk ikusten du telebista egunean zehar (AIMC, 2004), eta horrek zentzitasun handia ematen dio gure eguneroko jardunean.

3. IP, 2003tik eskuratutako datua.

4. DVDa duten Estatu frantziarreko etxebizitzaren kopurua %30,6koa dela dio Médiamétrie-k.

5a. Gainontzeko datuak AIMC, 2004koak dira, baina hau Eustat, 2003koak.

5b. Satelitez lotutako etxebizitzaren kopurua, IEN 2003ren arabera, %26,2koa da; bestalde, ordainpeko telebistadunen kopurua %16koa da IENren iritziz, erakunde berekoa da telebista digitalen kopurua.

	<b>EAE</b>	<b>NFK</b>	<b>HEH</b>	<b>EE</b>
<b>Audientzia</b>	90,6	87,2	89,9	90,7


Iturria: AIMC, 2004tik guk eginiko kalkuluak.

Ondoko lerrotan, telebista ikusten dutenen inguruko azterketa egingo dugu, beti ere kontsumo hori noiz egiten den jakin guran. Horretarako, audimetria erabilita —4 urtetik gorako biztanleria kontuan hartuz— egiten diren ikerketa-lanen emaitzak mahaigaineratuko ditugu. Hala nola, TNSren eta Médiamat-en datuak lehengai gisa hartuta, telebista-kontsumoak urterik urte nolako bilakaera izan duen ikusiko dugu —erreferentzi gisa harturiko urteetan, lurreko telebistagintza analogikoa da transmisio-sistema zabalduena—. Gainera, azken denboraldiko emaitzak kontuan hartuta, telebista-kontsumoaren gorabehera eta asteen eta egunean noiz izaten den aztertuko dugu.

### 2.1. Telebista-kontsumoaren bilakaera, minututan (1990-2003)

Lehen ere aipatu dugun bezala, denboraren erabileran telebistak oso leku garrantzitsua du. Hona hemen, urteen poderioz telebistari eskaintzen dizkiogun minutu-kopuruak izan duen bilakaera.


#### Telebista-kontsumoaren minutuak urteko; EAE, EE eta EF; TNS eta Médiamat, 2003



### 2.2. Telebista-kontsumoa hilearen arabera, minututan (2003)

Udazkena eta negua dira telebista ikusteko hilerik aproposenak, datuen arabera. Taulan ikus daitekeenez, bi urtaro horietako minutu-kopuruen eta uda-partekoen artean berebiziko aldea erakusten dute. Esaterako, abuztua eta otsaila alderatuz gero, ordubete inguruko desberdintasuna dago bien artean.

**Telebista-kontsumoa hileko; EAE, EE eta EF; TNS eta Médiamat 2003**



### 2.3. Telebista-kontsumoa asteko egunaren arabera, minututan (2003)

Telebista ikusteko zaletasunarekin erlazioa du lan edo jaieguna izateak, behin-tzat hargailuaren aurrean sartzen ditugun minutu-kopuruan.

	Astelh	Asteart	Asteaz	Ostegu	Ostirl	Larunb	Igandea	Asth-Ostl	Lar-Igan	Aste osoa
EAE	209	205	205	201	191	192	213	202	202	202
E.E	217	214	212	210	205	207	225	211	216	213

Iturria: Euskal Autonomia Erkidegoa eta Estatu espainiarra, TNS; 2004.

### 2.4. Telebista-kontsumoa eguneko ordu-multzoaren arabera, minututan (2003)

	02:30-14:00	14:00-17:00	17:00-20:30	20:30-24:00	24:00-26:30	Guztira
EAE	27	46	42	69	18	202
E.E	29	48	44	70	22	213

Iturria: Euskal Autonomia Erkidegoa eta Estatu espainiarra, TNS; 2004.

### 3. KANALEN AUDIENTZIAREN BILAKAERA

Orain arte ikusi dugun modura, telebista-kontsumoaren minutuak desberdinak dira urtearen, hilearen, egunaren edo eguneko orduaren arabera. Aldakorra da baita ere, telebista piztu eta bakoitzak aukeratzen duen kanalari eskaintzen dion denbora-tartea. Telebista-merkatu osoa kontuan hartuta, kanal bakoitzak lortzen duen zatiaz arituko gara ondoko lerrootan. Hori bai, lurreko telebista analogikoa hartuta azalpenaren bizkarrezur gisa.

#### Euskal Autonomia Erkidegoko, Estatu espainiarreko eta frantziarreko audientzia-kuota, 2001-2003; TNS eta Médiamat.

	EAE			Estatu espainiarra			Estatu frantziarra		
	2001	2002	2003	2001	2002	2003	2001	2002	2003
ETB 1	5,3	5,6	6,2						
ETB 2	17,8	18,5	18						
Autonom oro har	23,2	24,1	24,2	17	17,7	18,2			
TVE 1	21,3	21,2	20,2	24,8	24,7	23,4			
TVE 2	7,9	7,6	7,1	7,8	7,7	7,2			
Tele 5	23,1	22,8	24,2	21	20,2	21,4			
Antena 3	18,9	17,8	16,5	20,4	20,2	19,5			
Canal + E	1,9	1,7	1,8	2,3	2	2,0			
Plataforma digitalak		2,4	2,8		305	3,4			
Bestelakoak <sup>6</sup>	3,8	2,2	3,2	6,7	3,8	4,8			
TF 1							32,7	32,7	31,5
France 2							21,1	20,8	20,5
France 3							17,1	16,4	16,1
France 5 <sup>7</sup>							3,4	4,0	4,7
M 6							13,5	13,2	12,6
Canal + F							3,6	3,5	3,7
Bestelakoak							8,5	9,5	10,9

Iturria: Euskal Autonomia Erkidegoa eta Estatu espainiarra, TNS; Estatu frantziarra, Médiamétrie

6. Telebista lokalak, kable bidezkoak eta bestelakoak.

7. Errazteko asmoarekin, France 5 izenpean La Cinquième eta Arte izeneko kanalen batez besteko audientzia-datuak sartu ditugu.



## Euskal Autonomia Erkidegoko audientzia-kuota, CIES 1984-1985 eta 1987-1991 eta TNS, 1992-2003.

E/AE	1984	1985	1986	1987	1988	1989	1990	1991	1992	1993	1994	1995	1996	1997	1998	1999	2000	2001	2002	2003
ETB 1				7,1	13,6	16,2	8,1	8,4	4,5	5,5	5,2	5,9	6,7	7,5	6,7	5,4	4,6	5,3	5,6	6,2
ETB 2					20,7	23,8	16,5	14,5	9,3	10,7	12,4	14,8	16,1	17,2	16,5	15,6	16,3	17,8	18,5	18
ETB oro har	13,8	16,5		18,4	20,7	23,8	24,6	22,9	13,8	16,2	17,6	20,7	22,8	24,7	23,2	20,9	20,9	23,2	24,1	24,2
TVE 1	64	68,6		66,2	61,4	58,1	49,2	37,5	33,6	29,1	26,4	26,7	25,2	22,4	22,3	22,5	21,5	21,3	21,2	20,2
TVE 2	21,9	14,7		14,8	17,8	17,9	15,8	11,7	14,2	10,8	10,3	9,5	9,5	8,8	8,8	8,2	8,2	7,9	7,6	7,1
Tele 5							6,7	16,3	19,4	18,5	17,2	16,7	18,6	21,6	22,2	23,3	24,4	23,1	22,8	24,2
Antena 3							3,2	10,3	17,4	23,3	26,1	23,7	21,2	19,3	19,4	20,3	20,3	18,9	17,8	16,5
Canal + E							0,2	1	1,6	1,6	1,9	2,2	2	2,2	2	2	1,9	1,9	1,7	1,8
Plataforma digitalak															-				2,4	2,8
Bestelakoak										0,5	0,5	0,5	0,7	0,9	2	2,8	3	3,8	2,2	3,2

Iturria: CIESen datuak, 1986koak izan ezik, Garitaonandiaren artikuluko batean (2004) aipatuak agertzen dira; gainontzekoak, TNS (1992-2003).

#### 4. *PERFILAK*

Taula hauen bidez, definitu izan den unibertsoaren (penintsulan edo kontinentean bizi direnak, telebista-hargailua dutenak eta lau urte beteak dituztenak) eta horren barruan benetan telebista ikusten dutenen arteko alderaketa egin daiteke. Gainera, oso interesgarriak dira telebista-audientziaren perfilaren eta kanal zehatz baten artekoak konparatzea. Alderaketa horren ondorioz, kanalen ikuslearen izaera propioan sakon daiteke,

##### 4.1. *Estatu frantziarreko, France 2ko eta TF 1eko ikuslearen profila (CSA, 2002)*

<b>Talde sozio-demografikoa</b>					
		<b>Unibertsoa</b>	<b>Telebista-audientzia</b>	<b>France 2</b>	<b>TF1</b>
<b>Adina</b>					
	<b>&gt;4 urte</b>	<b>% 100</b>	<b>% 100</b>	<b>% 100</b>	<b>% 100</b>
	<b>4-10</b>	9	5,9	2,8	6,8
	<b>11-14</b>	5	4,1	2,7	3,3
	<b>15-24</b>	16	8,8	7,2	13,5
	<b>25-34</b>	14,8	13,6	10,4	21
	<b>35-49</b>	22,7	22,5	21,1	28
	<b>50-59</b>	12,5	12,9	14,5	12,7
	<b>&gt;60 urte</b>	21,7	32,3	41,3	16,6
<b>Sexua</b>					
	<b>Gizonezkoa</b>	48	44,2	41,7	42,2
	<b>Emakumezkoa</b>	52	55,8	58,3	57,8

## 4.2. Estatu espainiarreko, TVE Ieko eta Tele 5eko ikuslearen perfila (2003)

<b>Talde sozio-demografikoa</b>					
	<b>Unibertsoa</b>	<b>Telebista-audientzia</b>	<b>TVE 1</b>	<b>Tele 5</b>	<b>Plataforma digitalak</b>
<b>Adina</b>					
>4 urte	<b>% 100</b>	<b>% 100</b>	<b>% 100</b>	<b>% 100</b>	<b>% 100</b>
4-9	5,8	3,9	2,8	2,9	7
10-12	3,2	2,3	1,8	1,8	2,9
13-15	3,3	2,5	1,9	2,5	2,7
16-19	5,1	3,4	2,7	3,9	4,2
20-24	8,1	5,3	4	6,4	6,4
25-29	8,9	6,7	5,6	8,2	7,2
30-34	8,6	7,6	6,6	9	7,5
35-44	16,1	15,7	13,7	17,5	21,5
45-54	12,8	14,5	13,6	14,9	16,9
55-64	10,4	13	14	12,8	7,3
>65 urte	17,7	25,1	33,2	20,2	16,5
<b>Sexua</b>					
Gizonezkoa	48,9	44,5	41,9	40,6	55,8
Emakumezkoa	51,1	55,5	58,1	59,4	44,2
<b>Klase soziala</b>					
Altua eta ertain-altua	20,8	17,7	15,6	18	28,2
Ertaina	43,1	42,4	38,7	45,1	46,2
Ertain-baxua eta baxua	36,1	39,9	45,8	37	25,6
<b>Herriaren tamaina</b>					
<10 mila biztanle	23,8	23,3	26,9	21,2	21,8
10-50 mila	25,8	26,3	25,8	25,5	29,6
50-200 mila	22,9	23,4	22,6	24,7	24,1
200-500 mila	10,3	10,3	9,8	11,8	11
>500 mila	17,2	16,7	14,8	16,8	13,5
<b>Pertsonak etxebizitzako</b>					
1-2 pertsona	23,5	29	32,7	27,6	21,7
3-4 pertsona	50,8	49,2	46,1	51,3	51,3
5 edo gehiago	25,7	21,8	21,2	21,2	27

**4.3. Euskal Autonomia Erkidegoko, ETB Ieko eta ETB 2ko ikuslearen perfila (2003)**

<b>Talde sozio-demografikoa</b>				
	<b>Unibertsoa</b>	<b>Telebista-audientzia</b>	<b>ETB 1</b>	<b>ETB 2</b>
<b>Adina</b>				
>4 urte	<b>% 100</b>	<b>% 100</b>	<b>% 100</b>	<b>% 100</b>
4-9	4,7	2,5	11,6	0,9
10-12	2,4	1,5	3,4	1
13-15	2,7	1,6	3,4	1,1
16-19	4,4	3,5	2,8	2,8
20-24	7,6	4,8	3	4
25-29	8,8	6,4	5,8	5,4
30-34	8,5	6,9	4,6	6
35-44	16,7	14,9	12,9	14
45-54	14,3	16,3	9,4	19
55-64	11,4	14	12,1	15,5
>65 urte	18,5	27,7	31	30,3
<b>Sexua</b>				
Gizonezkoa	48,8	43,4	56,3	43,1
Emakumezkoa	51,2	56,6	43,7	56,9
<b>Klase soziala</b>				
Altua eta ertain-altua	24,2	21,6	26,8	23,2
Ertaina	53,8	52,9	49,8	51,4
Ertain-baxua eta baxua	22	25,5	23,4	25,4
<b>Herriaren tamaina</b>				
<10 mila biztanle	19,3	18,9	30,9	20,8
10-50 mila	31,3	33,8	36,9	33,8
50-200 mila	22,2	22	16,9	22,5
>200 mila	27,2	25,3	15,2	23
<b>Pertsonak etxebizitzako</b>				
1-2 pertsona	23,1	29,4	27,5	30,7
3-4 pertsona	52,1	49,9	46,1	50,9
5 edo gehiago	24,8	20,7	26,5	18,4

## 5. GENEROEN ERAKARGARRITASUN-MAILA


Aurreko azpiatalean, telebistaren eskaintza aztertzen denean, eguneroko programazio-tauletan genero desberdinek zenbaterainoko garrantzia daukaten zehazten da. Orduan ikusi dugu, pantailaratzen diren generoen artean, Fikzioa, Miszelanea eta Informazioa direla erabilienak. Oraingoan, aldiz, eskaintza horrek nolako erantzuna jasotzen duen ikusiko dugu. Alegia, kanalaren audientzia osatzerakoan zelako eragina izan duen genero bakoitzak (Arana, 2002). Eta, horretan, lehenago ere aipatu dugun modura, badira genero oso erakargarriak (Fikzioa, Kirolak eta Miszelanea) eta beste batzuk, aldiz, audientzia-ekarpen txikiagoa egiten dutenak (Kultura eta Erlizozkoak, esaterako).

Hona hemen, Estatu espainiarreko telebista-kanalen audientzian genero desberdinen batez besteko eragina zenbatekoa izaten ari den erakusten duen grafikoa, 1995-2003ko<sup>8</sup> bilakaera eta bederatzi urte horien batezbestekoak agerian utziz.

---

8. Kanal bakoitzaren audientzian generoek egiten duten aportazioaren batezbestekoa kalkulatzekoan, gordin-gordinean hartu dira TNSren datuak, kanal bakoitzaren audientzia potentziala zein den kontuan hartu gabe. Grafikoa honek, beraz, joerak erakustea du helburu.

Generoen audientzia-ekarpena 1995-2003-TNS



Grafikoan ikustenenez, genero bakoitzaren kontsumo-maila aldatuz doa, eta Fikzioaren erakargarritasuna beherantz doan bezala, Miszelaneak gorako bidea du agerian. Kirolek ere, kanalek eskuratzen duten audientzian gero eta garrantzi gutxiago dute. Informazioa antzerako parametrotan mugitzen da.

## 6. BIBLIOGRAFIA

- AIMC (2004): *Marco general de los medios en España-2004* <<http://www.aimc.es>>.
- Arana, E. (2002): “¿Evolucionan los gustos o el consumo televisivo?”, in *XVIII, Seminario de Televisión*, AEDEMO, Bartzelona, 169-198.
- Aztiker (2002): *Euskal Herria datuen talaiatik*, Udalbiltza, Astigarraga.
- DDM, CNC, CSA eta INA (2001): *Indicateurs statistiques de l’Audiovisuel*, DDM, CNC, CSA eta INA, Paris.
- Eurostat (2003): *Time use at different stages of life* <<http://europa.eu.int/comm/eurostat/>>
- Eustat (2003a): *Batez besteko gizarte-denbora, partaide eta tasari jarraiki, jarduera-motaren eta egunaren arabera (orduak eta minutuak) eta Batez besteko gizarte-denbora, partehartzaileari eta tasari jarraiki, aisi pasiboaren eta egunaren arabera (orduak eta minutuak)* <<http://www.eustat.es>>.
- , (2003b): “Familiak etxeguneko telebista- eta telefono-hornikuntzei jarraiki (%), Urteko batez bestekoa,” <http://www.eustat.es>.
- Fundación La Caixa (2004): *Anuario Social de España 2004* <<http://www.anuarisoc.lacaixa.comunicacions.com/java/X?cgi=caixa.anuari99.util.ChangeLanguage&lang=cat>>.
- Garitaonandia, C. (2004): “ETB: una televisión para la normalización de una lengua”, 195-208, in GECA, *El anuario de Televisión-2004*, GECA, Madril.
- Instituto de Estadística de navarra (IEN) (2003): *Estudio de la Sociedad de la Información en Navarra: Hogares y Población* <<http://www.cfnavarra.es/estadistica>>
- Médiamétrie: *Médiamat Annuel* (2001, 2002 eta 2003): <<http://www.mediametrie.fr>>
- Médiamétrie (2001): *Médiamat Annuel* <<http://www.mediametrie.fr>>
- , (2002): *Médiamat Annuel* <<http://www.mediametrie.fr>>
- , (2003): *Médiamat Annuel* <<http://www.mediametrie.fr>>
- TNS (2004): *Anuario de Audiencias de Televisión 2003*, Sofres AM, Madril.

## 7. GEHIGARRIAK

### *INTERESEKO WEBGUNEAK*



AIMC (Asociación para la Investigación de Medios de Comunicación)  
<<http://www.aimc.es>>

CIES (Instituto de Estudios de Opinión, de Mercado y Socioeconómicos)  
<<http://www.ciessl.com>>

CIS (Centro de Investigaciones Sociológicas) <<http://www.cis.es>>

CSA (Conseil Supérieur de l' Audiovisuel) <<http://www.csa.fr>>

EAO (European Audiovisual Observatory) <<http://www.obs.coe>>

European Social Survey (<http://www.europeansocialsurvey.org>)

Eurostat <<http://europa.eu.int/comm/eurostat/>>

Eurostat <<http://www.europa.eu.int/comm/eurostat>>

EUSTAT (Euskal Estatistika Insitutoa) <<http://www.eustat.es>>

Eustat <<http://http://www.eustat.es>>

Fundació La Caixa: Anuario Social de España 2004

<<http://www.anuarisoc.lacaixa.comunicacions.com/java/X?cgi=caixa.anuari99.util.C>  
hangeLanguage&lang=cat>

Garapen Kontseilua <<http://www.lurraldea.net>>

IEN (Instituto Estadístico de Navarra) <<http://www.cfnavarra.es/estadistica>>

INE (Instituto Nacional de Estadística) <<http://www.ine.es>>

INSÉÉ (Institute National de la Statistique et des Études Économiques)  
<<http://www.insee.fr>>

Médiamétrie <<http://www.mediametrie.com>>

TNS (Taylor Nelson Sofres) <<http://www.sofresam.com>>